

USURBILGO LANBIDE ESKOLAREN ETA AZPEITIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA; AZPEITIKO UDAL-INSTALAZIOETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALAKUNTZEN INGURUKO, ETA ENERGIA KONTSUMO ERAGINKORRAREN INGURUKO, AHOLKULARITZA ETA PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO.

Erref./HITZARMENA: 35H

Azpeitia, 2016ko maiatzaren 12a.

BILDU DIRENAK:

Alde batetik, Francico Vaquerizo Gomez jn., CIFP USURBIL LHII-ko (hemendik aurrera USURBILGO LANBIDE ESKOLA) Zuzendaria, erakunde honen izen eta eskuordetzan (Maiatzaren 13ko 116/1997 Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxe Publikoetako Lagun Bakarreko Aginte-Organoak Hautatzeko Prozesua arautzen duena).

Beste alde batetik, Eneko Etxeberria Bereziartua jn., AZPEITIKO UDALAREN Alkatea, erakunde honen izen eta eskuordetzan. Ahalmen hau dauka 2016ko maiatzaren 3ko Udalbatzaren akordioan ezarri denaren arabera.

Alderdi biek hitzarmen hau egiteko legezko gaitasun nahikoa eta ahalmen egokiak dituztela elkarri aintzatetsi dizkiete, eta

ADIERAZI DUTE:

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluaaren atal ezberdinetan ezartzen denarekin bat, AZPEITIKO UDALAK, lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, berariazko eskumenak ditu titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzerako eta kudeatzerako, baita ingurumenaren babesa eta garapen jasagarria modu osagarrian sustatzeko eta defendatzeko ere.

Gure gaur egungo bizi moduan energiak gero eta garrantzia handiagoa du. Bizi kalitatea neurtzeko garaian energiaren kantitatea eta kalitatea faktore zuzenak eta esanguratsuak dira. Hau horrela izanda ditugun energia beharrei erantzuteko martxan ditugun sistemak ahalik eta eraginkorrenak izateaz gain, ingurumenarekin errespetuz jokatzeko ezinbestekoa dugu. Horretarako energia berriztagarrien garapena sustatu behar da.

AZPEITIKO UDALAK dagoeneko, efizientzia energetikoa hobetzeko bidean hainbat ideia eta lan ditu. Hain zuzen ere, Udalak une honetan **Energia Plan** bat darama aurrera energiaren kontsumoa gutxitzeko, erabiltzen den energiaren eraginkortasuna (efizientzia) hobetzeko eta energia berriztagarrien sustapenerako.

Energia Planaren baitan, Udalak honako ekimenak eta jarduerak eraman ditu aurrera orain arte:

- Titulartasun publikoko honako eraikin, instalazio eta ekipamenduak aztertu dira: Berdelari, Perretxikoa, ikastola berria, kiroldegi, Gasoleoa C...
- Distrit heating.
- Kaleko argiztapena.
- LED argiztapena.
- Igerilekuko geotermia instalazioa.
- Etab.

Une honetan, eta etorkizunera begira, berriz, honako ekimenak eta jarduerak aurreikusi dira:

a) **Auto elektrikoa eta bere instalazioa:** AZPEITIKO UDALAK udaltzaingoaren lan zerbitzurako auto elektriko bat ekartzeko asmoa du. Auto elektriko hori kargatu ahal izateko kargagailu bat instalatu behar da udaltzaingoaren eraikina den Sindikatu Zaharrean. Udalaren helburua energia berriztagarriak erabiliz (eguzki panelak...) autoak behar duen energia sortzeko azterketa egitea da.

b) **Azpeitiko igerilekua:** Udalaren eraikinetatik energia gehien kontsumitzen duenatarikoa da. Duela urtebete eraikinaren handitze bat burutu da. Datorren urteetan eraikinaren zati zaharraren egokitzea burutzeko asmoa dago. Udalak nahi duena da egokitze hau aprobetxatzea eraikina energetikoki efizienteagoa izan dadin:

1. Isolamendua
2. Eguzki-panelen Instalazioa: (fotovoltaikoa, termikoa)
3. Eolikoa
4. Etab

c) **Soreasuko kultur ekipamendua:** Une honetan erdi hutsik dagoen eraikin handi bat bada ere (zinea eta antzerkia ematen da, eta baita zenbait jarduera osagarri ere), bere xedea kultur gune finko bat izatea da. Helburu horrekin Udalak eraikinak dituen guneak egokituko ditu, eraikina energetikoki efizienteagoa izateko behar diren neurriak hartuz.

-0-

USURBILGO LANBIDE ESKOLA, Lanbide Heziketako Institutu Integratua da, eta bertan Energia eta Ura familia profesionala lantzen da. Lanbide eskolak prestakuntza arautu, ez-arautu eta lantokiko prestakuntza emateaz gain, hainbat enpresekin eta erakundeekin batera berrikuntza proiektuen garapenean ere laguntzen du, teknologia hauetan aritzen diren sektoreen lehiakortasuna eta garapena bideratuz.

USURBILGO LANBIDE ESKOLAK bere instalakuntza eta giza baliabideak direla eta, baliabide eta ezaguera teknikoak ditu, AZPEITIKO UDALAREN Energia Planaren baitan udal-instalazioetan energia berriztagarrien txertatze prozesuan eta energiaren erabilera eraginkortzeko prozesuan, aholkularitza eta prestakuntza teknikoa emateko.

Hori guztia kontuan izanik AZPEITIKO UDALAK eta USURBILGO LANBIDE ESKOLAK erabaki dute **LANKIDETZA HITZARMEN** hau bideratzea:

LEHENENGOA.- Lege esparrua.

HITZARMEN honetan adierazten dena bat dator Apirilaren 1eko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide-Heziketako Ikastetxe Bateratuak arautzen dituen 46/2014 Dekretuko 6. artikuluko 2. paragrafoan c) puntuan adierazitakoarekin non Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuen eginkizun eginkizun posible gisa aipatzen den dagozkion familia profesionaletan berrikuntzari eta garapenari lotutako ekintzak eta proiektuak sustatzea eta garatzea, inguruko enpresekin eta gizarte-solaskideekin elkarlanean; baita Dekretu berean 2. artikuluan xedatutakoarekin, non ikastetxe hauei Hasierako Lanbide Heziketa eskaintzeko gaitasunaz gain, Hezkuntza Ez-Arautuko prestakuntza eskaintzeko ahamena ematen zaion.

BIGARRENA.- Helburua.

Hitzarmen honen helburua da AZPEITIKO UDALAK, energia berriztagarrietan, energia kontsumoaren aurrezte eta energia efizientzian garatzen dituen proiektuetan laguntzea. Laguntza honen bidez USURBILGO LANBIDE ESKOLAK Udalarai aholkularitza eta laguntza teknikoa eskainiko dio.

Horrez gain, AZPEITIKO UDALeko korporazioak eta teknikariek ezaguera teoriko-praktikoa jaso dezaten eta udaletxearekin zerikusia duten lanak eta proiektuak garatzeko gaitasuna areagotu dezaten, prestakuntza ikastaroak eta jardunaldiak ere antolatuko dira, horretarako egitarau bat osatuz.

Prestakuntza ikastaro hauetan, Udaleko korporazioak eta teknikariek ezezik, herriko enpresetako teknikari eta langileek, eta interesa duten gainontzeko herritarrek ere parte hartu dezakete, hauek ere ezaguera teoriko-praktikoa jaso dezaten beren sektorean ingurumenaren aldeko proiektuak bideratu ahal izateko.

AZPEITIKO UDALAK, USURBILGO LANBIDE ESKOLAREN laguntzarekin, herritar guztiei zuzendutako prestakuntza ikastaro bereziak ere antolatu ahal izango ditu, horretarako dagokion tramitazioa bideratu behar delarik.

HIRUGARRENA.- Ekintzak.

AZPEITIKO UDALAREN instalakuntzei dagozkien helburu eta proiektuak bete ahal izateko (Sindikatu Zaharra, igerilekua eta Soreasuko ekipamendua), USURBILGO LANBIDE ESKOLAK proiektuetan aholkularitza eta laguntza teknikoa eskainiko dio.

USURBILGO LANBIDE ESKOLAK honako funtzioak izango ditu:

- 1.- Aurre-Proiektuen inguruko laguntza
 - a. Proiektu eta instalazio berriei begira
 - b. Egungo instalazioetan eraginkortasun energetikoa hobetzeko
 - c. Energia berriztagarrien ezarpena
- 2.- Proiektuen exekuzioan laguntza-aholkularitza
 - d. Proiektuen jarraipenean. Adibidez 2016 urteko Edizioan:
 - i. Soreasu
 - ii. Igerilekua
 - iii. Sindikatu Zaharra
 - iv. Aurtengo urtean onartuko diren proiektuak.
- 3.- Energia Azterketak
- 4.- Jardunaldiak
- 5.- Prestakuntza saioak.

Ikastaroen lan-saio teknikoen eta emanaldi praktikoen ezaugarriak, egitarauak eta aurrekontuak kasu bakoitzean azalduko dira, hurrenez hurren.

LAUGARRENA.- Hitzarmenaren hartzaile/onuradun zuzenak.

Hitzarmen honetan ohartematen diren laguntza, aholkularitza eta prestakuntza egitarauak honako hauentzat izango dira:

-Azpeitiko Udaleko korporazioa, teknikariak eta langileria orokorrean.

BOSGARRENA.- Alderdien ekarpenak eta betebeharrak.

Lehen azaldutako helburuak betetzeko eta ekintzak burutzeko, hitzarmen hau izenpetzen duten alderdiek honako ekarpen eta betebeharrak hitzartu dituzte:

1.- USURBILGO LANBIDE ESKOLA:

1.1. Ekarpenak

1.1.1. Giza Baliabideak

Energia Berriztagarrien Zentroaren kudeatzailea. Prestakuntza ekitaldiak zuzen emateko behar diren irakasleak.

Hitzarmen honen gai den egitarau osoaren zaintza, kudeaketa eta jarraipena zaindu eta ziurtatzeko behar diren langileak.

1.1.2. Baliabide material eta ekonomikoak

USURBILGO LANBIDE ESKOLAK Energia Berriztagarrien Zentru berrian dagoen ekipamendu guztia erabiliko du hitzarmenaren bidez bere egin duen xedea betetzeko.

Prestakuntza ikastaroen matrikulen dirua biltzeko bitarteko eta prozedura finkatzea.

1.2. Betebeharrak

1.2.1. Hitzarmenaren egoerari eta ezaugarriei buruzko difusioa, informazioa ematea eta egiaztagiria igortzea, seigarren eta zazpigarren klausuletan ezarritakoaren arabera.

1.2.2. Hitzarmena garatzeko eta betetzeko behar diren alderdiak begiratu eta zaintzeko ardura bere gain hartzea, helburu guztiak beteko direla ziurtatuz.

1.2.3. Hitzarmenaosatzen duten ekintzen amaieran Azken Memoria prestatu eta bidaltzea.

2.- AZPEITIKO UDALA:

2.1. Ekarpen ekonomikoak

2.2.1. USURBILGO LANBIDE ESKOLAK Hitzarmenaren 2016. Urteko Lehen Edizio honen baitan emandako aholkularitza eta laguntza teknikoagatik eta Energia Berriztagarrien Zentroaren difusio, garapen eta mantenimenduagatik sortutako gastuak estaltzeko AZPEITIKO UDALAK 4.000 €ko jarriko ditu.

Ordainketa hitzarmen hau sinatu ondoren burutuko da.

2.2.2. Prestakuntza saioen egitaraua aurrera eman eta burutzetik eratorritako gastuak,

Usurbilgo Lanbide Eskolako irakaslegoaren zein kanpoko irakaslegoaren partaidetza, tresneriaren edota materialen erosketa eta kudeaketa gastuak; guzti hauek AZPEITIKO UDALAK hartuko ditu bere gain 2.2.1 puntuari aipatutako diru partidatik at, kanpoko diru laguntzak lortzen ez diren heinean.

2.2.3. Adostutako diru partida agortzean eta dagokion justifikazio ekonomiko eta tekniko jasotzean (Memoria), diru partida berriak adostuko dira ildo bereko ekintzak sustatzuz.

2.1. Betebeharrak

2.1.1. Hitzarmen egoerari eta USURBILGO LANBIDE ESKOLArekin erlazioari buruzko zabalbidea, publikitatea eta informazioa, AZPEITIKO UDALAK antolatzen dituen erlazionatutako aktibitate zein argitalpen guztietan.

2.1.2. Hitzarmen honetan deskribatzen diren aktibitate guztiekin zerikusia duten argitalpenetan, ikuskizun sailetan edo posterretan, USURBILGO LANBIDE ESKOLAREN logotipoa ipiniko da, ikusgai.

SEIGARRENA.- Publikitatea eta informazioa.

AZPEITIKO UDALAK hitzarmen honetan jasotzen diren egitarauak barne informazio kanalen bidez zabalduko ditu eta egitarau horien ezaugarri eta garapenari buruzko argibideak emateko hitza ematen du, eta horretarako, azaltzen zaizkion zailtasun oro argitzeko konprometua hartzen du.

ZAZPIGARRENA.- Gaitasun eta bertaratze-agiriak.

Prestakuntza egitarauaren baitan antolatzen den ikastaro bakoitza amaitzen denean eta, hala badagokio, ebaluazio-saioak egin ondoren, USURBILGO LANBIDE ESKOLAK ikastaro bakoitzaren mailari dagokion gaitasun-agiria emango die erregulartasunez eta aprobetxamenduz ikastaroen jarraipen egokia egin duten ikasleei.

Gutxienez ikastaroaren iraupenaren % 90-a bete baina behar adinako gaitasun-maila erakusten ez duten ikasleei "bertaratze-agiria" emango zaie, hala eskatzen badute.

ZORTZIGARRENA.- Gainbegiratzea, jarraipena eta ikuskatzea.

AZPEITIKO UDALARI dagokio, USURBILGO LANBIDE ESKOLAK garatzen dituen iharduerak,

lankidetzaz hitzarmenari eragiten diotenak nahiz eragin diezaieketenak, gainbegiratzea, jarraitzea eta ikuskatzea, aldi oro, hasten diren arte.

Aurreko guztia alde batera, Hitzarmen honetako ihardueren helburua, izaera nahiz baldintzak aldatu nahiz ukitzen dituen zernahi gorabehera gertatu bezain laister, USURBILGO LANBIDE ESKOLAK horren guztiaren berri eman beharko dio AZPEITIKO UDALARI.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmena hausteko arrazoiak.

Hitzarmen honetako klausulak eta Eranskinetan jasotako erabakiak nahiz beren izaeragatik indarrean dagoen legedian jasotako beste edozein lege-arau ez betetzeak hitzarmena haustea eragin dezake.


HAMARGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau izenpetzen den egun berean jarriko da indarrean, eta sinatzen duten bi aldeetako batek kontrakoa erabaki arteko iraupena izango du. Dagokionean, beste aldeari komunikatuko zaio idatziz Hitzarmenaren indargabetze erabakia eta arrazoiak. Edozein kasutan, hitzarmenaren iraupenak, luzapenak barne, ezingo du ezargarri zaion legeak jasotako epe-muga gainditu.

Hitzarmenak dirauen bitartean hainbat aldaketa izan ditzake. Hitzarmenaren aldaketa horiek ezingo dute indarrean den legeak ezarritako muga eta baldintzak gainditu, ez erakunde bakoitzak dituen eskumenetan ezta kontratazio legeriaren baitan bete beharreko prozeduratan.

Hitzarmenaren aldaketak oinarritzko dokumentuaren ERANSKIN modura jasoko dira espedientean.

Hitzarmen honetan parte hartzen duten alderdiek, beren adostasuna erakutsiaz, ala bitan izenpetzen dute hitzarmen hau, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.



Patxi Vaquerizo Gómez
CIFP USURBIL LHII-ko Zuzendaria




Eneko Etxeberria Bereziartua
Azpeitiko Udaleko Alkatea

